

Gure taldea, Wasamasaw izenekoa da. Gu June, Garazi, Uxue eta Joseba gara, Ibaizabal Ikastolako ikasleak. Gizarteratze goi mailako zikloa ikasten ari gara eta gure proiektua gizartearen arriskuak edo baldintzak hobetzean datza.

Gizarteak aldaketa bat behar duela uste dugu, eta horregatik, sortu dugu proiektu berri hau, non parte hartzaileak, egoera latzetan bizi direnak dira. Kale egoeran bizi diren pertsonentsako esku hartze bat proposatu dugu. Alde batetik, kapsula batzuen bidez, gau hotzak pasatzeko gunea eskaintzen ditugu.

Bestetik, egunean zehar, normalean, pertsona hauek ez dute zereginik, beraz, gure eguneko zentroan, tailerrak, kirola... eta beste hainbat zerbitzu eskainiko dizkiegu gizartearen parte eta lanpetuta sentitzeko.